

Usteen ustelak harrapatuta

USTEZ AITONA

Izenburua: Ustez aitona. Jatorrizko izenburua: Mi abuelo el presunto. Egilea: Paloma Bordons. Itzultzailea: Idoia Gilenea. Argitaratze urtea: 2004. Argitaletxea: Giltzo (Tukan bilduma).

INMA ERREA

NORK ez du jaso bat-batean, bederatzi urte dituela, ezagutzen ez duen aitona baten ustekabeko bisita etxean? Tira, onartu beharra dago, gehienok jaiotakoan ezagutu genituen gure aitona-amonak, halakoak izatekotan, bederen. Baina ezin ukatu norbaitek, bederatzi urte dituela, ezagutzen ez duen aitona baten bisita hartzen ahal duela, ustekabea... Hori eta beste gauza asko

gertatzen ahal zaizkio bederatzi urteko haur bati, baina Lolari, istorio honen protagonistari, horixe gertatzen zaio, prezeski: bizitza osoa amarekin bakarrik bizitzen eman ostean, aitona dela dioen gizon adinekoa aurkezten zaio etxean, Lolak aitona zuela ere ez zekiela, eta bizimodua aldatzen dio, arras.

Ipuin hau, hain zuzen, aldaketek mamitzen dute, txiki-txikitatik gure bizitza gobernatzen duten aldaketek. Izan ere, maiz kontrakoak uste badugu ere, bizitza ez da errealtate egonkor eta finkoa, baizik eta, gu hala moduzko orekari eusten saiatzeko garaia, gure ingurua etengabe eraldatzen duen gorabehera-saldoa.

Ohikoa da esatea haurrak erraz

egokitzen direla inguruabar berrietara, helduok baino errazago, alegia. Eta hori egia izanik ere, ukazina da haurrei ere kostatzen zaiela gertaera berriak onartzea, eta horiek gogaitzen dituztela, batez ere, bizimodua eraldatzen badie. Lola bederatzi urteko neskatila haurra da, eta aitona ezezagunaren etorrerara egokitu da, baina egokitzen horretan zailtasun batzuk pairatuko ditu, kezka, zalantza, gaizki-lertuak eta beldurrak. Lola errealtateaz jabetzen ahaleginduko da, bederatzi urteko neskatila ahalegin daitekeen eran, hau da, konprenitzen ez dituen gauzak argitzen saiatzen, eta bere bizipenak bere kideenekin alderatzen. Eta, azkenean, hainbat poz

ere bereganatuko ditu.

Paloma Bordons *Ustez aitona* liburuaren egilea eskarmentu handiko idazlea da, haur literaturaz bezainbatean, liburu ugari idatzi baititu (*Cleta y yo, Demontre Saltsa berdetan!, No lleves hadas al Cole, Quiero ser famosa, Leporino Clandestino, La Tierra de las papas, Sombra...*), eta sariak ere ugari jaso ditu, esparru horretan. Hain zuzen *Ustez aitona* ipuin honekin Edebé haur literatura saria irabazi zuen, 2004an. Bere istorio hau galizierara, katalanera eta euskarara aldatu zuten. Euskarazko itzulpena Idoia Gileneak egin zuen, istorioari darion freskotasuna bere horretan irautaraziz, euskara goxo bezain egokia erabiliz eta hala elkarrizketek

nola protagonistaren burutazioek duten umorea bete-betean gure hizkuntzara ekarriz.

Liburu honetan, Paloma Bordons bederatzi urteko neska baten munduaren berri ematen digu, bere argi-ilun guztiekin, umore-tantez eta konplizitate-keinuez atonduta. Etxean ustekabea aurkezten den usteko aitona bat eduki gabe ere, liburu honen irakurle gazteenek aise egingen dute bat Lola protagonistarekin, edo, agian, Pato edo Susana haren lagunekin. Finean, nork ez ditu desgogoko izan, adin honekin, arrautza frijitu hautsiak jan beharra, gaueko erritoei lotara joateko aurretiko ipuina, gurasoen musumateak... huts egitea edota lagunaren aurrean lotsagarri gelditzea?